

Barneko informazio sistema

DATUEN BABESARI BURUZKO
INFORMAZIO GEHIGARRIA



2024ko azaroa



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.



AGIRIAREN HELBURUA

Modu errazean deskribatzea zein den AKGSaren politika honako honi dagokionez: 2/2023 Legean jasotako ekintzak edo ez-egiteak jakinarazteko barneko informazio sistemaren kudeaketatik eratorritako datu pertsonalen erabilera, salaketa horiek iristen diren bidetik iristen direla ere.

Agiri hau Datuen Babeseko Erregelamendu Orokorrak xedatzen duenaren arabera egin da.

2

NOR DA ZURE DATU PERTSONALEN ERABILERAREN ARDURADUNA?

Nortasuna: Arabako Kalkulugunea SA (aurrerantzean, AKSA; IFZ: A-01052539), eta, bereziki, Administrazio Korporatiboaren eta Giza Baliabideen Arloko arduraduna.

Posta helbidea: Probintzia plaza z.g., 01001 Gasteiz

Telefonoa: 945 181818

Posta elektronikoa: CCASA_SistIntInf@araba.eus

3

ZERTARAKO ERABILIKO DITUGU ZURE DATU PERTSONALAK?

AKSAk honako xede hauetarako erabiltzen du berarekin lan harremanak dituzten pertsonen buruzko informazioa:

- Arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen 2/2023 Legean jasotzen diren ekintzen edo ez-egiteen salaketak kudeatzeko.

AKSAk ez du pertsonak profilatzeko jarduerarik egiten.

4

NOIZ ARTE EDUKIKO DITUGU

ZURE DATUAK?

Jakinarazitako gertakariei buruzko ikerketa bat hastea bidezkoa den erabakitzeko ezinbestekoa den denboran baino ez ditugu gordeko emandako datu pertsonalak. Ikerketaren ondorioz salaketa jartzen bada epaitegietan, prozesu judizialak irauten duen bitartean gordeko dugu informazioa.


Nolanahi ere, ikerketa jarduketarik hasten ez bada, komunikazioa jaso ondorengo hiru hilabeteetan gordeko ditugu datuak.

5

ZEIN DA ZURE DATUAK ERABILTZEKO LEGITIMAZIOA?


Honako hau da datuak erabiltzeko lege oinarria:

- Arau hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duen otsailaren 20ko 2/2023 Legearen 30. artikulua onduz AKSAk dituen lege betebeharrak betetzea. Zehazki:
 - DBEOren 6.1.c) artikulua
 - Datu pertsonalen kategoriaz bereziki erabilera, funtsezko interes publikoa dela-eta, 9.2.g) artikuluan jasotakoaren arabera egin ahal izango da.



NORI EMANGO DIZKIOGU ZURE DATUAK?

Datuak ez dizkiogu hirugarren bati jakinaraziko, salbu eta ikerketaren ondorioz salaketa judizial edo administratiboa jartzen bada eta informazioa Fiskaltzari, agintaritza judizialari edo dagokion administrazio organoari helarazi behar bazaio, eta beharrezkoa bada erakundean neurri zuzentzaileak hartzeko edo, hala badagokio, bidezko diren zehapen edo zigor prozedurak izapidetzeko.



ZER ESKUBIDE DAUKAZU DATUAK EMAN ONDOREN?

Pertsona orok eskubidea du jakiteko AKSA bere datu pertsonalak erabiltzen ari den ala ez.

Pertsona interesdunek beren datu pertsonalak eskuratzeko eskubidea dute, eta eska dezakete oker dauden datuak zuzentzeko, bai eta ezabatzeko ere, datuak jada ez badira beharrezkoak bildu ziren helburuetarako, edo beste arrazoi batzuentatik.

Kasu jakin batzuetan, datuak erabiltzeari edo eskualdatzeari mugak jartzeko eska dezakete interesdunek; hori eginez gero, datuak erreklamazioak egiteko edo defendatzeko baino ez dira erabiliko.


Kasu jakin batzuetan, interesdunek beren datuen erabileraren aurka egin dezakete, beren egoera bereziarengatik. Horrelakoetan AKSAk ez ditu datuak erabiliko, salbu eta premiazko arrazoi legitimoak badaude, edo erreklamazioak egin edo defendatzeko.

Datuen erabilera mugatzen bada edo erabileraren aurka egiten bada, baliteke AKSAk egin ohi dituen jardueretako batzuk egin ezin izatea (esaterako, hautaketa prozesu batean parte hartu ezin izatea; beraz, pertsona batek bere eskubideak baliatuz bere datu pertsonalen erabilera mugatzen edo erabileraren aurka egiten badu, esan nahiko du uko egiten diela AKSaren jarduera horiei).

Aurreko paragrafoetan adierazitako eskubideetako edozein baliatu nahi duenak, posta bidezko jakinarazpena edo jakinarazpen elektronikoa bidali behar dio AKSAri dokumentu honetan adierazten diren harremanetarako helbideetara.



Norbaitek uste badu bere eskubideren bat ez dela errespetatu, erreklamazioa aurkez diezaioke Datuak Babesteko Espainiako Agentziari (<http://www.agpd.es>).



NOLA LORTU DITUGU ZURE DATUAK?

AKSAk honela lortu ditu erabiltzen dituen datu pertsonalak:

- 2/2023 Legean jasotako eskubidea egikaritzen duten pertsonen (anonimoak izan daitezke), entitateen edo erakundeen bidez.
- Jakinarazitako salaketak aztertzeko barne prozesuen ondorioz.

Datu pertsonal hauek erabiltzen ditugu:

- Identifikazio datuak: izen-abizenak, NANA, posta helbidea, posta elektronikoko helbidea, sexua, telefonoa
- Datu ekonomikoak eta finantzarioak
- Datu akademikoak eta profesionalak

AKSAk ez du erabiltzen babes bereziko daturik: jatorri etnikoa edo arraza, iritzi politikoa, sinesmen erlijioso edo filosofikoa, afiliazio sindikala, datu biometrikoak eta bizitza sexuala.



Arabako Kalkulu Gunea, A.B.
Centro de Cálculo de Álava, S.A.